



Patagoniara Hazparnen barrena

Kepa Altonaga

Upaingoa 33

ISBN: 978-84-7681-986-9

Urtea: 2017 / 128 or.

13x19 cm

12,00 €

Oroitzapen batetik abiatuta eta Obaban zehar, Lotilandiako garaietaraino hurbilduko gara Kepa Altonagaren eskutik. Aldamenean daukagu mundu hori, baina guztiz ezezagun bilakatu zaizkigu horko parajeak eta biztanleak, eta ahaztu egin dugu bere historia.

Gizakume bi gailentzen dira *Patagoniara Hazparnen barrena*. Lotilandiakoak herri birlandatuan honetan. Florentzio Basaldua (1853-1932) bilbotarrak du protagonismo nagusia: Ameriketara doa oso gazterik, eta bertan eraiki nahi du Euskal Herri berri bat, hango zabaldu haindigaitzetan. Janpierre Arbelbide (1841-1905) garaztarra da kontrapuntua: «hori ez da amets bat beizik» idatzi zuen, baina predikatu nahi die Ameriketara joandako euskaldunei.

Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan liburu intrigagarri eta mamitsua da, zeinean aurkituko baititugu bai Ameriketara turrustatu zen jende-uholde ikaragarri hura –tartean Daniel Lizarralde medikua, Juana Canut maistra lapurtarra, Otaño eta Mendiaga bertsolariak, edota Agnes Souret ezpeletarra, lehen miss Frantzia izandakoa–, eta bai, bestalde, Betiri Santsen negar-herri honetan geratu zirenak ere.

• • •



KEPA ALTONAGA (*Loiu*, 1958)

Hautzaroko lehen urteak Txorierrin bizi izan eta gero, Bilbon kokatu zen. Biologia-ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean: 1980. urtean lizentzia eta 1988an doktore-gradua. Zoogeografia eta Ornogabe Ez-Artropodoen Zoologia irakasten ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Hainbat ikerketa burutu ditu Iberiar Penintsulako bare-barraskiloen taxonomiaren eta

banaketaren gainean: Eusko Legebiltzarrak Munibe Saria eman zion bere ikerketa-taldeari 1992an.

Gazterik euskaltzaletu zen, Caro Baroja irakurriz, eta 1978tik aurrera Udako Euskal Unibertsitateko kidea da, 1992-95 tartean zuzendaria izan zelarik. UZEI, Elhuyar eta Euskaltzaindiarekin kolaboratu izan du. Idazlan ugari plazaratu ditu, baina gogokoenak dibulgaziozkoak.

Liburuen artean: *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (Elhuyar, 1998), *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001), *Etxepare, Aldudeko medikua* (Euskaltzaindia / Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006), *Darwin geurean* (Pamiela, 2010), *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa* • Bixtiak: *Asiskok* (Pamiela, 2011), *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015).



PAMIELA
argitaletxea